

ZUTIK JARRAITZEN DUGU!

"Bide bat, horixe baino ez da, bide bat... eta guk, bestelako nahirik gabe, Ermuko Udal Antzerki Tailerrak azken bost urteotan egin duen bidea erakutsi nahi dugu". Hitz ximple hauekin aurkeztu zuten Tailerreko partaideek hil honen 10etik 18ra bitartean burutu duten bostgarren urteurrenaren homenezko ekitaldiak.

Dena den, bost urte hauek, Antzerki Tailerrak 1989an hasitako ziklo berri baten errepasoa besterik ez lirateke izango, tailerra bera 1980an jaio baitzen, Euskal Herri mailan aintzindaria izanik antzerki munduko barrenen irakaspenean.

Geroa antzerki taldea izan zen garai hartako Eibar-Ermua

zen edozein antzeztalderentzat antzerki munduan formaturiko jendea bereganatzea.

Garai hartako zuzendaria, egun oso ezaguna dugun Paco Obregon izan zen, eta bere esku etorri ziren Chejov-en "El Oso" edo "Petición de mano" bezalako muntaiak. Garai hartan ere, Tailerraren arteko partaideen artean lehen diferentziak somatzen hasi ziren, eta hiruzpalau urte pasa ondoren argi geratu zen erdiprofesionalduriko eta ikaskinen arteko diferentzia areagotuz zihoala.

Urte batzuetako parentesia eta gero, berriz ere 1988an, Geroa taldeko partaideen bultzadak martxan jarri zuen Antzerki Taldea. 30 bat lagun elkartu



EUATko partaide bat mundatutako erakusketan.

tzaien, eta zerbait hori antzezen bat zen, muntaiak bat, Geroa taldeko Izaskun Asua eta Alfonso Torregrosa tailerraren orduko arduradunek eskeini ez zezaketena.

1989an gertaturiko Ricardo Combi zuzendari argentinarraren etorrerak puntu eta aparte nabaria ekarri zuen Tailerraren martxan. Aurreko urtean sartu ziren 30 pertsonetatik zortzi besterik ez ziren geratzen, aipaturiko muntaiaren ezak beste guztiak desanimatu baitzituen. Combirekin ordea, garai berri baten hasiera etorri zen. Bostgarren urteurrenaren ospakizunen aitzakiak, azken bost urte hauetan burutu diren ikastaro, ikuskizun, jardunaldi eta muntaiak dira, zeintzuetan 150 pertsona baino gehiagok hartu baitute parte.

Zuzen jokatu nahi izanez gero, normalena zatekeen hainbat garren urteurrena ospatzea bostgarrena baino. Dena den,

diotenez "aukera ez da kasuala, ez arbitrarioa ere, eta are gu-txiago baztertzaila, iraganak oraina sortzen bait du". EUATk xede eta espektatibaz hornituriko ziklo berri bati ekin dio kolektibo gisa, aurreragoko garaiekin parekatuz ezberdina dena, baina zalantza ugari edukita ere, ilusio bakar bat -antzerkia noski- mantenduz.

Ilusio hori izan da eta da oraindik ere EUAT bizirik mantentzen duena. Ilusio hau dela medio, 1989an estreinatutako "Hablame como la lluvia y dejame escuchar..." eta "Como un juego... todavía" muntaiak. Urrengo urtean "Juicios sin prejuicios" antzeztalari tokatu zitzaion, eta ordudunik hona "Rescate en el País de los Colores", "Ortadarraren kondaira" eta "Lysistrata" antzezenak ikusgai izan ditugu.

Aurten, dena den, ez da muntai berririk prestatu. Ezin izan da antzerki ikastarorik bu-

rutu eta ezta pentsatu ere inolako antzerki festibalik edo homenaldirik prestatu. Izan ere, bostgarren urteurren honen antolatzea etorri da Antzerki Tailerrekoek ez dutelako nahi izan urte osoa ezerezean igaro, entseiatzeko edo lan egiteko inolako lokalik izan ez arren.

Beraiek dioten bezala, "gaur eguneko egoera ez da zoriontsuenetarikoa. Aurrekontuen murrizketa, Udal Ateneoaren itxeta, lan egiteko leku baten gabezia dira, besteak beste, kolektiboak berak ezarritako dinamika nabarmen galgatu duen errealtateak sortutako egoerak. Abagune hori jakinik, baina beti ere neketik urruti, inertiaren indarrari gure egin nahia kontrajartzen diogu, horixe baita hazten jarraitu ahal izateko ezagutzen dugun bide bakarra".

EUATkoek hil honetan buruturiko ekintzekin bilatu nahi izan dutena zera izan da: "hemen gaudela eragozpenei aurre egin, hemen gaudela esateko eta agertzeko prest. Bizirik sentitzearen antolatutako bostgarren urteurren hau, zutik jarraitzen dugulako, eta aldi berean zenbait aditzera emateko orain horrela ez geundekela beste politikar bat mantendu izan balitz".

Antzerki Tailerrekoek argi dute beraien muntaiak ez direla ez, egin daitezkeen onenak,

nahiz eta estatu mailan hainbat sari jaso. Beraiek dakitena zera da, azken urte hauetan nolabaiteko zaletasun bat sortzen ari zela herri mailan, antzezen guztietan aretoak beteaz.

Ezin uka daiteke gauza haue-tarako Ermua beste herrien arte-tik desberdintzen dela. Kolektibo eta elkarte bereziak ditu. Herriko bizilagunek, barrutik zein kanpotik, antzerki kolektiboa bezelako beste hainbat talderekin bat egiten dute, elkarekintza oso berezi bat eraginez. Dinamika eta kimika hau da, izan ere, Antzerki Taldeak argi erakutsi nahi diona Udalari, bere bizitzaren azken bost urteotako errepasua eginez.

EUATk bere baitan sentitzen du erdi jota dagoela, lokalik gabe, Ateneorik gabe eta bestelako laguntzarik gabe ezin baitu iraunbizitzeaz aparte besterik egin. Tente darrai, hori bai, baina ezin ditu bizia puztutzen dizkion ikastaroak eta antzerki muntaiak aurrera atera. Horregatik zera eskatzen dute, besterik gabe "Udalak bere ateak orain dauzkana baino pixkat gehiago zabal diezazkigula, gure aldetik daukagun guztia jarriko bait dugu Ermuko Udal Antzerki Tailerreari behar duen etorkizuna emateko".

Itziaki Moreno
Santos Vega

Euskararen erreferentzi berria

Lanek iraun duten bitartean pertsona asko pasa izan da bertatik. Batzuk zer izango zenaren jakin nahiak mugituta, beste batzuk, inplikatuena, noiz bukatuko irrikitan.


Urteetan zehar amets zoragarri bat izan dena errealtate bihurtu da dagoeneko, eta ospatu nahian hainbat ekintza prestatu dituzte AEKKo arduradunek: "Kutsidazu bidea Ixabel" izeneko liburuaren aurkezpena eta inaugurazio ofiziala, nola ez!

Kanpotik duen estilo polit eta originalak, barruan eguneroko klaseetan egiten den lanaren ispilua dirudi.



Kanpoko itxura erakargarria

SANTOS VEGA



Barruan, lanari eta euskarari ekinez.

SANTOS VEGA

Hauze duzue hemendik aurrera euskararen ezinbesteko erreferentzia.

Zorionak eta Ongi Etorri Kaltxango Euskaltegia!

Bea Narbaiza



Antzerki tailerrekoek Udaletxeko ganbara eskenatoki bihurtu dute

Antzerki Tailerraren benetako bultzatzailea. Tailerraren orduko xede nagusia aktoreak formatzea zen, esan bezala, ez baitzegoen bestelako antzerki eskolarik, eta zaila gertatzen

ziren urtebetez antzezena eta antzerki munduko hainbat eta hainbat gauza ikasteko. Ilusioa ez zitzaien falta. Berriz ere martxan zegoen Tailerra. Hala eta guztiz ere, zerbait falta zi-

TXALAPARTA
TABERNA

Ezagutzen gaituzu
Badakizu non gaituzun

ESKA EHUNAK

- Jantziak egiten dira
- Ebaketa ta jantzigintzazko klaseak ematen dira

Goienkale, 9 • Tlf. 17 44 69

OUTUMURO KAFETEGIA

- KAFE BEREZIAK
- TARTA NATURALAK
- AUKERA HAUNDIA TE ETA INFUSIOETAN

ELEKTRIZITATEA
ZUBIAURRE

ARGIGINTZA eta HARILKETAK

Zubiaurre, 18 / ☎ (943) 17 00 61

48260 ERMUA

Kopi-Fax

Kopistegia
Papertegia

Gabon zoriontsuak!

Torrekua, z/g. 48260 ERMUA
Tfnoa. eta Faxes: (943) 17 42 89